



EBAZPENA, 2021eko abenduaren 10ekoa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2021-2022 ikasturtean pertsonal ikertzailearen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2021eko uztailaren 13ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntza berriak ebazten dituena.

Ikerketa Orokorrean, eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

#### EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntza berriak ematea, 2021-2022 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharrezko zenbatekoa adieraziz. Baita ere, I modalitateko onuradun bakoitzak (horrelakorik egonez gero) bidairako jasoko duen zenbatekoa aipatzen da.

Kontratuak 12 hilabeterako izango dira.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen den ordezkoen zerrenda ezartzea, lerroak, arloak eta lehentasunaren arabera zehaztuz. Hutsuneak gertatuz gero, hauek 30. artikulua zehazten duen bezala beteko dira

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren ez onartutako eskatzaileen zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz

Laugarrena.- IV. eranskinean aukeratze-prozesutik kanpo gelditu diren pertsonen zerrenda onartzea, kanpo geratu izanaren arrazoiak zehaztuz

Bostgarrena.- Dirulaguntza horien zenbatekoa, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak 2021eko uztailaren 13ko aginduak xedatutakoaren arabera erabakitzea.

#### AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Hezkuntza sailburuari gorako errekurtoa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abenduaren 10ean

ADOLFO MORAIS EZQUERRO  
Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN